

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Beaumont kontseilaria Madrilen izan da Administrazio Publikoaren Arloko Biltzarrean, bederatzi urte beranduago berraktibatu ondoren

*Nafarroako Gobernuak genero-indarkeriaren biktimak diren langile publikoen administrazio arteko mugikortasunaren aldeko babesa erakutsi du.*

Astelehena, 2018.eko urriak 22

Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilaria den María José Beaumont gaur goizean Madrilen izan da Administrazio Publikoaren Arloko Biltzarrean, bederatzi urte deitu gabe egon ondoren berriro berraktibatu baita. Bertan, Biltzarraren Antolamendu eta Funtzionamendurako Erregelamendua onartu dute eta Administrazio Publikoaren arteko Lankidetzak-akordioa, genero-indarkeriaren biktimak diren langile publikoen administrazio arteko mugikortasuna bultzatzeko.

Administrazio Publikoaren Arloko Biltzarra herri-administrazioaren alorreko eta honako hauen arteko lankidetzak-organoa da: Estatuko Administrazio Orokorra, Autonomia Erkidegoetako Administrazioak, Ceutako eta Melillako Hiri Autonomoak eta Toki Administrazioak.

Organoaren eginkizuna da denen jarduerak eta proiektuak bultzatzea, horien helburua lankidetzak eta kalitatea hobetzea izanik herritarrei zerbitzu publikoak ematerakoan, elkarrekiko errespetuaren barnean, Administrazio bakoitzak esleituta dituen eskumenak gauzatzearren. Organoaren erabakien helburua da akordioak hartzea eta, hala badagokio, gomendioak egitea.



María José Beaumont kontseilaria (argazkiaren eskuinaldean) eta Meritxell Batet ministroa (erdian) Administrazio Publikoaren Arloko Biltzarrean parte hartu duten gainerako agintariekin batera.

Estatuko Gobernuo  
Lurralde Politikako eta Funtzio  
Publikoko Meritxell Batet  
ministra da lehendakaria, eta  
María José Beaumont organoko  
kidea da, Autonomia  
Erkidegoetako kontseilaritzen

gainerako titularrak bezala, Administrazio Publikoarekin loturiko eskumenak gauzatzen dituztenak, eta horiekin batera daude Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioko ordezkari bat eta Ceutako eta Melillako ordezkari titularrak. Biltzarra osatzen duten pertsona guztiak bileran egon dira.



Parte-hartzaileak gaur goizeko bileran.

Erregelamendua onartu ondoren, Herri Administrazioen arteko lankidetzaz, koordinazio eta komunikazioaren esparru orokor gisa Akordioa onartu dute, genero-indarkeriaren biktimak diren langile publikoen administrazio arteko mugikortasunaren printzipioa aplikatzea errazteko helburuarekin, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legean jasotako eskubidea gauzatuaz; hots, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartua.

Administrazio Publiko guztien arteko elkarrekikotasunari erreparatuta, akordioaren arabera, edozein langile publikok egindako mugikortasun-eskaerak artatu behar dira, betiere genero-indarkeriaren egoera behar bezala egiaztatuta eta dagokion Administrazioaren barruko mugikortasuna konpondu ezin bada; halaber, prozedura horiek lehentasunez izapidetu behar dira, biktimen, aurreko eta ondorengo ahaideen eta haren zaintzapean dagoen edozein pertsonaren intimitatea babesteaz gain.

Kontseilariak Akordio hori babestu du, genero-indarkeriaren biktimak diren langile publikoen mugikortasun geografikoa apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeko 49. artikuluan onartutako eskubidea baita, emakumeenganako indarkeriaren aurka egiteko. “Gure ustez, indarkeria matxistaren biktimak diren langile publikoen mugikortasun geografikoa bultzatzen duten neurriak sustatu behar dira, barnean nahiz beste Administrazio Publikoekin, Nafarroan eta Estatuko legedian bertan jada horrela onartuta baitago; beraz, horretarako, Akordioa babestu dugu”.